

Herri Aldizkaria

Otamotz

1999ko uztaia 49. alea



Santa Isabelak 99

Santa Isabelak 99

Girorik onena hemen aurkituko duzu



ALASKA

TABERNA
Kalebarren, 1
☎ 943 72 56 50

Garmeta
JATETXEA
Piedad kalea, 14
☎ 943 72 08 19
ZUMARRAGA

KABIÁ
JATETXEA
Legazpi, 5
Tel. 943 72 62 74
ZUMARRAGA

HUTS

TABERNA

GAU

TXORI

VZKVDVN

kroisantegia
Soraluze Kalea 9
☎ 943 72 61 93

ALEXANDER KROISANTEGIA
Piedad, 16 ☎ 943 72 18 21

kakuetakafe
Eliz-kalea, 9
☎ 943 72 28 78
ZUMARRAGA

urdin
taberna
Legazpi, 14
ZUMARRAGA

TXOKO
TABERNA
Bidezar

ARKUPE
TABERNA

HIRUKIA

POLITENA
TABERNA

ARRUABARRENA
KAFETEGI-GOZOTEGI
Legazpi, 8
☎ 943 72 28 71
Zumarraga



Duela 35 urte inguru egun Zumarragako haurren tanborrada denaren aurrekarian ateratakoa. Goikaldean: Maria Isabel Torres, Lucía Carrillo, Maribi Zeberio, Marisol Garin, Maribi Garijo, María Blazquez, Maria Jesus Burguete, ezezaguna, Mari Carmen Etxeberria.

Behelaldean: Rosa Mari Aldama, Ana Giralt, Castaños, Garbiñe Uria, Maria Dolores Mendia, Maria Jesus Herrero, Lourdes Sasieta, Maria Rosario Ramirez, Nere Anduaga, Maria Jesus Sastre, Eli Lasa, Fontaneda, Lourdes Gisasola, Dori Madrid, Ana Quintana eta Pili Badiola.



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Urretxuko udalak eta Zumarragako udalak emandako diru laguntza jaso du

Argitaratzailea: Zintzo Mintzo Euskaltzaleen Elkarte, Labeaga kalea 12, 20700 Urretxu.
Tel: 943725775 **koordinatzailea:** Asier Zaldúa **Erredakzio kontseilua:** Unai Alzelai, Aintzane Arizmendiarieta, Jon Balenziaga, Gorka Erostarbe, Jonmikel Insausti, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Marian Toledo, Asier Zaldúa. **Diseinua:** Sebas Iturrioz. **Informatikaria:** Jonmikel Insausti.
Inprimategia: GOI DESIGN - Zumarraga **Lege Gordailua:** SS-742/96 **ISSN:** 1136-7318
Tirada: 2.000 ale. **Edizio digitala:** <http://www.geocities.com/Athens/Delphi/2202> **Otamotz** aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Mutua General de Seguros

Jose Luis Balenziaga

Areizaga, 3 URRETXU tel:722599

MURGA

Oinetako konponketa

Laruzko erropen konponketa.
Guraiza, labana... zorrozketa

Labeaga, 37 URRETXU
Golden plazoletan

BAIMENDUTAKO



Pepe Jeans
LONDON



SALTOKIA DOSS

Bidezar, 13 ZUMARRAGA



HARGOR

Ileapaindegi mistoa
Nekolalde, 3, URRETXU
☎ 943 72 44 42

HARGOR

Artisautza Nekolalde, 5
Arropak Urretxu
Opariak ☎ 943 72 56 58



BAPRI
ANIMALIADENDA

Txoriak, arrainak, katuak, dordokak

Urdaneta, 3 ☎ 72 61 13
ZUMARRAGA



Legazpi, 5
☎ 943 726274
ZUMARRAGA



SANTA ISAB

Uztailak 1, osteguna

Goizeko 8etan: Euskadi enparantzan aste-ko azoka.

Goizeko 11:30etan: Sekundino Esnaola Musika eskolako trikitilarien kalejira.

Arratsaldeko 6etan: Kale animazioa: zangoluzek, pailazoak, jokoak...

Arratsaldeko 6:30etan: Ohitura den bezala, herriko agintariak, "Antzinako Ama" txistulari taldearekin batera, Antiguako Amari ikustaldia egingo diote.

Arratsaldeko 7:30etan: Andre Maria Jasokundeakoaren parroki elizan, Parroki abesbatzak abestuta, Eslavaren Salbea.

Iluntzeko 10etan: Zelai-Arizti pilotalekuan txupinazioa, txoznen irekitzea eta trikitilariak.

Gaueko 11etan: Elkarteen arteko XXXIV. tanborrada: herriko elkarteez gainera koa-drilek, Goiargi abesbatzak eta Zumarragako Musika Bandak nahiz Tximeletak txarangak hartuko dute parte.

Ondoren, goizeko 2ak arte: kalejira eta Euskadi enparantzan animazioa Tirri-Tarra fanfarriarekin.

Goizeko 3ak arte: Kalejira Tximeletak txarangarekin.



Uztailak 2, ostirala Santa Isabel eguna

Goizeko 8etan: "Antzinako Ama" txistulari taldearen kalejira.

Goizeko 9etan: Santa Isabel Jaietako II. Argazki Rallya.

Lehiakideak: nahi duten

zaletu guztiek h a r deza-ke te parte.

Gaia: uztailaren 2an ospatzen den

Santa Isabel jaiaren inguruan lau gai zehaztuko dituzte antolatzaileek eta rallyaren egunean emango dira ezagutzera. Nola parte hartu: uztailaren 2an, goizeko 9etatik 10etara, Udaletxe azpirazalduz.

Goizeko 9:30etan: Euskadi enparantzan elkartu eta herriko agintariak nahiz herritarak Andre Maria Jasokundeakoaren parroki elizara joango dira herriko apaizekin batera Antiguako elizara igotzeko.

Goizeko 11etan: Meza Nagusia. Hasieran, ohitura den bezala, herriko dantzariak ezpatadantzatu eta eskainiko diote Ama Birjinari. Ondoren, berriz, elizaren inguruan prozesioa txistulari eta ezpatadantzariekin batera.

Eguerdiko 12:30etan: Aurreksua eliza aurreko zelaian.

Eguerdiko 1ean: Joxe Agirre eta Imanol Lazkano bertsolarien eta, Elorza anaiak, Zaldua anaiak, Zunzunegi anaiak eta Zumarragako trikitixa trikitilarien saioa.

Eguerdiko 2etan: Herri bazkaria Antigua inguruan bertsolari eta trikitilariak alaiturik.

Ondoren, erromeria "Antzinako Ama" txistulari taldeak eta trikitilariak soinua jota.

Arratsaldeko 7etan: Antiguako Amari bederatziruena eta errosarioa.

Arratsaldeko 8:30etan: Agurra eta itzulerara agintariak eta ezpatadantzariak aurretik direla, eta Antzinako Ama txistulari taldea, trikitilariak soinua jotzen direla.

Arratsaldeko 8:30etatik 9:30ak arte: Kalejira Pasai txarangarekin.


Iluntzeko 9:15etan: Euskadi enparantzan kaleko ezpatadantza.

Ondoren eta iluntzeko 10:30ak arte: Euskadi enparantzan erromeria txistulari eta trikitilariak soinua jota.


Gaueko 11etan: Zelai-Arizti pilotalekuan kontzertua.

Gaueko 12:30etatik goizeko 2:30ak arte: Euskadi enparantzan Kepa Junkeraren kontzertua.

Gaueko 11:30etatik goizeko 3etara: kalejira Pasai txarangarekin.



EL JAIAK 99



Arratsaldeko 5etan: Euskadi enparantzan Gipuzkoako Harrijasotzaile Txapelketa.

Herri-kirol saioan, tarteka, Zumarragako trikitixa arituko da soina jotzen.

Arratsaldeko 6:30etan: Euskadi enparantzan herri-kirol saioetako sariak banatzea.

Arratsaldeko 7etan: Euskadi enparantzan Dantza Erakusketa. Honako dantzataldeok izango dira: Urretxuko Lurra eta Zumarraga-Urretxuko Irrintzi.

Ordu berean: Poteo herrikoia trikitilari eta bertsolariekin.

Uztailak 3, larunbata Baserritarrei eta koadriliei eskainitako eguna

Goizeko 11etan: Euskadi enparantzan koadrilak elkartu eta bazkarirako mahaiak eta aulkiak montatzen hasi.

Eguerdiko 12etan: Euskadi enparantzan koadrilen arteko jolasak.

Eguerdiko 12etan: Euskadi enparantzan koadrilen arteko jolasak.

Eguerdiko 12etan: LUZ irratizaleen kultur elkarteak antolatuta, Antigua inguruan izango den Irrati bidezko 24 kultur orduen X. ekitaldiari eta Ermiten Diploma lehiaketari hasiera ematea.

Arratsaldeko 12:30etan: Euskadi enparantzan herri kirolen erakusketa. Idi probak. Parte hartuko dutenak: Jose Salegi, Belarreta, eta Arienza.

Eguerdiko 1etan: Zumarragako Musika Bandaren eskutik kalejira.

Ordu Berean: poteo herrikoia txistulari eta trikitilariekin.

Eguerdiko 2:30etan: Koadrilen bazkaria.

Arratsaldeko 4:30etan: IV. Mus Txapelketa Bidezkar kalean, Txoko eta Haizea tabernean antolatuta.

Arratsaldeko 9etan: Euskararen aldeko Gizakatea.



Iluntzeko 10:30etan: Beloki pilotalekuan profesionalen arteko pilota partidua: Eugi-Goñi III Goñi II-Zezeaga

Gaueko 11etan: Zelai Arizti pilotalekuan Bide Ertzean taldearen kontzertua.

Gaueko 12etatik goizeko 4etara: Euskadi enparantzan dantzaldia Manhattan taldearekin.

Gaueko 12etatik goizeko 4etara: kalejira Aldatz Gora fanfarriarekin.

Gaueko 12etatik goizeko 4etara: Euskadi enparantzan "Larrain dantza" dantzatuko da.

Goizeko 5etan: Txokolatejana txosnetan.

Uztailak 4, igandea Jubilatuei eskeinitako eguna

Goizeko 9:30etan: Kalejira "Antzinako Ama" txistulari taldearen eskutik.

Goizeko 10etan: Galeperra E.A. elkarteak antolatuta eskualde mailako platerjotze lehiaketa.

Eguerdiko 12etan: Antigua inguruan, LUZ irratizaleek antolatuta irrati bidezko 24 kultur orduen X. ekitaldiari amaiera ematea.

Eguerdiko 12:30etan: Andre Maria Jasokundeokoaren parroki elizan jubila-tuentzako meza.

Eguerdiko 1:15etan: Filipinar taldearen kalejira.

Eguerdiko 1:30etan: Euskadi enparantzan Zumarragako Musika Bandaren kontzertua Lander Zurdo zuzendari dela.

Arratsaldeko 2:30etan: jubilatuen bazkaria.

Arratsaldeko 7etan: Euskadi enparantzan Dantza Libre Txapelketa. Zumardi elkarteak antolatu eta Euskal Herriko bikoterik onenek parte hartuko dute.

Oharra: Eguraldi txarra eginez gero, Beloki pilotalekuan egingo da jaialdia.

Gaueko 10etan: Euskadi enparantzan Dantzaldia, Zumarragako Musika Bandaren eskutik.



Zumarragako ezpatadantza mendez mende

Uztailaren bia, batez ere, eta abuztuaren hamabosta iristen diren bakoitzean, herriko agintariak aurretik direla dantzariak eta txistulariak elizan sartzen diren bakoitzean, badirudi giro berezi batek biltzen duela inguru guztia.

Elizgizonak aldarean, agintariak beren lekuetan, eliza betetzen duen jendea zutik, lepoak luzatuz dantzarietara begira. Hauek, berriz, aldarearen aurrean tente, Ama Birjinari begira, urduri, txistulariek dantzaren hasiera noiz adieraziko zain. Badirudi gertakizun garrantzitsuren bat hastera doala, gure arbasoek emandako agindua berriro betetzera goazela dirudi, liturgia-magia-gudu-errito kutsua dario ikuskizunari. Ezpatadantza hastera doa...

Behin baino gehiagotan galdetu izan diogu geure buruari, eta guk bezela beste askok, noiztik ote datorkigun ohitura eder hau, baina ez dago galdera horri erantzun zehatzik ematerik.

Garai bateko kontuak arakutzen eta paper zaharrak miatzen hain zaletua dugun Angel Cruz Jakak dioenez, 1539. urteko uztailaren bian, Antigua aldean nolabaiteko festaren bat ospatu zela adierazten duen agiririk ba omen dago Zumarragako udaletxeko artxibategian. Ez dago esaterik, ordea, zer nolako festa izan zen, eta ezta dantzari-rik izan ote zen ere.

Badakigu, ordea, hurrengo mendean, XVII. mendean hain zuzen ere, ezpatadantza dantzatzeko zela. Hala, lan honetan bertan ikusi ahal izango dugu 1656. urtean ezpatadantzaren inguruan sortutako saltsa eta istiluak.

Bestalde, badakigu, gaur egun era honetako ezpatadantza Zumarragan bakarrik dantzatzeko dela, baina antzinean ere... horrela ote zen?

1912. urtean bertako erretore

lanetan ari zen J.E. Lasa apaizak, euskara jatorrean idatzitako "Zumarragako Antiguako Ama Mariaren Eleizaren Kondaira" izeneko liburuan, 23. orrialdean eta uztailaren bigarreneko erromeriari dagokiolarik honela dio: "...Meza nagusi-yaren aurretikan eguiten da Antiguari inñun ere, nere ustez, eguiten ez dan gauza ikusgarri bat. Eguiten da Mezaren aurretikan Eleizaren barruban Ama Mariaren aldare aurrian Ezpatadantza, zergatik orrela dalako guizaldi askotako oitura, Ama Mariari eskerrak emateko".

Hauek esan ondoren ezpatadantzaren zertzelada guztiak azaltzen dizkigu



1539an jada festa egiten zen Antion uztailaren 2an.

J.E. Lasak, dantzarien lanak banan banan aipatuz.

Baina, apaiz honek mende honen hasieran ezpatadantza "beste inñun ere eguiten ez dan gauza ikusgarri bat" dela esaten badigu ere, beste apaiz bat, Aita Larramendi jesuita, 1750. urte inguruan ez zen iritzi horretakoa, eta bere "Corografía de Guipúzcoa" izeneko liburuan, probintzi honetako dantzez ari dela,

honela dio: ... "la danza de espadas es para funciones más graves, verbigracia, para las procesiones de Corpus y su octava, para las otras que se hacen a San Juan y otros patrones de los lugares o advocación de sus iglesias, y no se tiene por irreverencia que la fe y devoción de los hombres acompañen al Señor presente por las calles y entren en las iglesias y en la procesión y dancen delante de Su Majestad patente, ofreciéndole sus adoraciones, sus gratitudes a su dignación divina..."

Beraz, badirudi 1750. urtearen inguruan herri askotan eegiten zela ezpatadantza, eta 1912an, berriz, ia ia Zumarragan bakarrik dantzatzeko zela.

Hori horrela izanik, XVIII. mendearen bukaera arte ezpatadantza dantzatzeko ohitura Gipuzkoa osoan oso zabaldua egon zela pentsa liteke, bai festa berezietan eta baita elizetan ere. Ohitura hori toki gehientsuenetan galdu da. Zumarragan, berriz, gaur egunerarte iritsi zaigu.

**Ezpataz zauritu
gaizki dantzatzeko
zuela esateagatik**

Usteak uste eta kontuak kontu, garbi dagoena zera da, eta inongo zalantzarik gabe esan dezakegu, hemezortzigarren mendetik aurrera behintzat Zumarragan dantzatu izan dela ezpatadantza, eta gaur arte gorde dela dantza berezi hau.

Esandakoaren lekuko, ondoren azken lau mende hauetan dantza honen inguruan gertatutako hainbat gora-beheraren berri azalduko dugu.

Urretxuko udal artxiboan bada Zumarragako ezpatadantzarekin zerikusirik duen agiririk interesgarri bat.

Artxibategiko arduraduna den

Koldo Argandoña, "Kaixo" aldizkaria-
ren 30. alean eman zuen argitara, eta ber-
tan 1656. urtean uztailaren bian Antio
aldean izandako liskarraren berri ematen
zaigu.

Garai hartan Zumarraga, Ezkio,
Itsaso, Gabiria, Ormaiztegi eta Lazkaoren
artean gaur egungo
mankomunitatea
antzeko bat osatzen
zuten, Azeria izenez
ezagutzen zena.

H e r r i
bakoitzak bere
alkatea zuen, baina
horien gainera izan
zen Arieriako
alkate nagusia, eta
zenbait arazoan
aurrean haxe izan
zen erabakiak
hartzen zituen.

Esandako
artxiboan aurkitzen
den dokumentu
hori Arieriako alkate
nagusi horrek idaz-
tarazi zuen,
Jerónimo de
Elgarrestak hain
zuzen, eta bost orri
ditu guztira.

Hasieran esaten denez, Santa Isabel egun
horretan bi dantzarien arteko istiluak
zirela medio, zaurituen bat izan zela
jakin omen zuen alkate nagusi horrek, eta
gertatutakoa argitu eta errudunak zigor-
tzeko asmotan, ahal zen informazio guz-
tia biltzeko agindua eman zion Asensio
de Machain ofiziozko idazkari edo eskri-
bauari.

Bestalde, alkateak gaur egungo
udaltzainen lana betetzen zuen Domingo
de Eguibide izeneko juradoari, berriz,
Juan de Alzola izeneko gaztea preso hartu
eta gartzelaratzeko agindua eman zion.

Ondoren hiru lekukori deitu zien
eskribauak, eta banan-banan bakoitzak
ikusitakoa azaldu zuten. Juan de Garate,
Ignacio de Muxica eta Tomás de Iturbe
ziren hauen izenak, eta beren esanetan
egun horretan bertan, eguerdi aldean,
ezpatadantzan ari zirela, Bartolomé de
Ibargurenek Juan de Alzolari ez zekiela
ondo dantzatzen, ikasi berria zela eta
aldegiteko esan omen zion bultzaka Juan
hau lurrera bota arte.

Juan de Alzolak, berriz, altxatze-
an, bere zorrotik aterata zeukan ezpatare-
kin kolpea tira omen zion Bartolome
horri eta, halaxe, zangoan zauritu omen
zuen. Horrela egindako zauria Tomás de
Plazaola izeneko sendagileak sendatu
omen zuen: "...el dicho Bartolomé que

altxatzean nahi gabe zauritu omen zuen
bere zorrotik aterata zeukan ezpatarekin.
Berak ez zuela Bartolomé iraintzeko
asmorik, betidanik lagun zirela eta orain-
dik ere laguntzat zeukala berak esan zion
Juan de Alzolak Asensio de Machain
eskribauari.

Ondoren alkateak
Bartolomé de
Ibargurenengana bidali
zuen eskribaua, eta Juan
de Alzola auzitara era-
man nahi bazuen,
hurrengo egunera arteko
epea zuela adierazteko
agindu zion.

Ibargurennek eskribau-
aren azalpena entzun
ondoren ez zuela inor
auzitara eramane nahi,
eta ez zeukala inor auzi-
taratzeko motiborik
erantzun zion.

Hau jakin ondoren,
alkateak sendagilearen-
gana bidali zuen eskri-
baua, Ibargurennek zuen
zauriak arrisku larri-
rik ba ote zuen esan zezan.

Uztailaren hamaikan
egon zen eskribaua

medikuarekin, eta honen esanetan hilaren
bitik aurrera ari omen zen Bartolomé de
Ibarguren zaintzen. Ezkerreko zangoan
kanpo aldetik egindako ziztakada, ondo
ari omen zen osatzen, eta ez bosgarrenean
eta ezta zazpigarren edo bederatzigarren
egunean ere, ez sukarrak, ezta handitze
eta hozminik ere izan ez zuenez, aipatuta-
ko egun horiek garrantzi handikoak izan-
nik, nahiz eta erabat sendatu gabe egon,
zaurituak hiltzeko arriskurik ez zuela
adierazi zuen medikuak: "... y dixo que el
le cura a Bartolome de Ybarguren desde
dos de julio des presente mes de una esto-
cada que tiene en la pierna izquierda por
la parte de fuera que parece ser edha con
cosa cortante que se llega asta periostrio y
la llaga viene bien encarnando y no havi-
do ningun açidente asi como pasmo,
ynflamacion, calentura en el quinto ni en
el séptimo, noveno, oncen como son
dias criticos y aunque tiene que curar esta
fuera de peligro de muerte..."

Egun hartan bertan Juan de
Alzolak, preso zegoenak, libre utzi zezan
eskatu zion Alkate Nagusiari.



1943. urtean Santa Isabel egunean seroraren etxe aurrean ateratako argazkia.
Ezkerretik eskubira: Pascual Okariz, Joxe Etxaniz "Mordo", Don José Larrea,
Tomás Aizpurua eta Martín Zenekorta "Tximista".

guiava y le hizo cargo al dicho Juan de
Alçola que no sabia bien a dançar que
erea bisoño y se quitare y le dio empuxo-
nes al dicho Juan de Alçola y le derribo en
el suelo y al lebantar le tiro con la espada
desenbaynada al dicho Bartolome y le
erio en la pierna y a esto este testigo y
otros los apartaron y esto erea la verdad y
lo que vio y sabe que al dicho Bartolome
le cura Tomas de Plaçaola cirujano la
dicha herida..."

Bederatzi egun eman zituen gartzelan lagun dantzaria zauritzeagatik

Zortzi egun beranduago, artean
preso zegoen Juan de Alzolari, gertatuta-
koaren berri galdetzeko agindu zion alka-
te nagusiak eskribauari.

Juan de Alzolaren esanetan
Bartolomé de Ibargurennek dantzaren ez
zekiela, eta zegoen tokitik aldegiteko esa-
nez bota omen zuen bultzaka lurrera, eta

Ibargurenekin izandako liskarrari buruzko bere aitortpena egina zuela eta ordurarte handik eta hemendik jasotako iritzietan, bere aurkako kulparik agertzen ez zenez, fiantza jarrita behinik ere, gartzelatik ateratzea eskatzen zuen.

Alkateak ontzat eman zuen Juan de Alzolak eskatutakoa, eta bere aitari fiantza jartzeko hitza hartu ondoren, bederatzi egun preso zeramatzan Juan de Alzola dantzaria aske utzi zuten.

Ez dantzatzeagatik ere gartzelara

Juan de Alzolak, Bartolomé de Ibarguren zauritzeagatik preso egon behar izan bazuen, ez zen izan ezpatadantza zela medio, kartzela hori ezagutu zuen bakarra.

Ehun eta sei urte beranduago, 1762.eko abuztuaren 15ean hain zuzen, ez zen ezpatadantza dantzatu Zumarragako eliz nagusian, eta arrazoi horregatik Francisco de Izaguirre eta Juan de Izaguirre dantzariak ere kartzelan egon behar izan zuten.

Honen guztiaren berri ematen digu agiri bat ere bada Zumarragako udaletxe-ko artxiiboan, hamabost orrialdekoa hain zuzen ere, eta Antonio Pradak aurkitutako dokumentu honek azaltzen digunez Joseph Antonio de Yarza, garai hartako alkate jaunak bi dantzari horiek auzitara eraman nahi izan zituen Ama Birjinaren Jasokunde egunean ezpatadantza atera ez zutelako.

Urte horretan bertan, uztailaren bian, dantzatu omen zen Antion, eta orduan Francisco eta Juan de Izaguirre izan omen ziren aurrekulularia eta atzeskulularia ("primera y última mano" agirietan azaltzen denez), baina abuztuko Ama Birjinaren egunean bi buruzagi hauek ez agertzean, gainerantzeko dantzariak ez omen zuten dantzatzerik nahi izan.

Alkatea ez zen oso gozoa jarriko, eta mezatatik irten orduko bere juradu edo alguzila, bi dantzari hauengana uda-

letxera etortzeko aginduarekin bidali zuten. Hauek, ordea, ez zutela alkatearen errietaldirik entzuteko gogorik esanez beren etxera bidean abiatu omen ziren.

Udaltzaina alkatearengana erantzun honekin joan zenean, berriro ere bidali zuten honek, oraingoan preso ekartzeko aginduarekin, baina oraingoan ere alferrik: Juan eta Francisco Izaguirrek lehenik bazkaldu egin behar zutela eta ondoren azalduko zirela erantzun baitzioten.

Bazkal ostean, ordea, udaletxera joan ziren eta alkateak bertako gela batean preso hartu zituen. Arratsalde hartan bertan, jende mordo bat bildu omen zen udaletxeko batzar aretoan, eta alkatea joan eta han aurkitu zituenean, beste gela batean egon behar zutela, eta hara bidali omen zituen preso.



Paxkual, "Tximista" eta Sampedro agintariekin udaletxeko bidean.

Egun hartan sortutako iskanbila ez zen ez makala izango. Alkateak bi dantzariak auzitaratzeko asmotan ahal zen informazio gehien jasotzeko aginduzion eskribauari, eta horrela idatzi zituen honek hamabost orri horiek.

Bertan azaltzen dira, besteak beste, urte hartako uztaila eta abuzturako izendatuta zeuden dantzari guztien izenen zerrenda (63 izen guztira), eta goizean gertatutakoaz zenbait jende egindako azalpenak. Hala nola alkateaz gain, Ignacio de Egaña alkate ordearenak, Francisco de Alzola juradoarenak, Agustin de Zaldua errejidorearenak eta, lekuko gisa, Francisco de

Echeverriarenak ere bai.

Baina garai haietan zigorrak ezartzea ez zen alkateei zegokien lana, eta aipatutako agirietan agertzen den azken atalean, Manuel de Goicoechea liizenziatuak, lehen aipatutakoen azalpenak irakurri ndoren, Francisco eta Juan de Izaguirre bi dantzariak, alkatearen esana ez betetzeaz eta esan behar ez direnak esateaz erruduntzat hartu zituen, eta hauen ondasunak bahitzeko agindua eman zion herriko juradu edo alguzilari.

Ondorengorik ez dakigu, baina auzi honetaz besterik idatzi ez zenez, pentsatu liteke bi dantzariak istilu honek guztiak sortutako gastuak ordainaraziko zizkietela, eta ondoren libre utziko zituztela, egun hartan bertan agian.

Dena den, bai gai honekin eta bai 1656. urtean gertatutakoarekin garbi ikusten da sortutako istiluak haundiak izan zirela. Jende askok eta askok idatzen eta irakurtzen ez zekien garaian hainbat orri idazteko gertakizunak ez zirela huskeriak izan. Lehen aipatutako 63 izenez osatutako zerrenda horretan ere, dantzariaren izenak banan-banan ondoan gurutze bana dutela agertzen dira. Horrek esan nahi du izen guztiak ondo erreparatu zituztela banan-

banan. Hortik atera kontuak alkatearen haserrea zer nolakoa izango zen.

Dantzatu eta handik egun gutxitara hil

Baina horrekin batera garbi ikusten den beste gauza bat hau da: ezpatadantza egun horietan dantzatzeak garrantzi handia zuela agintari eta herritarrentzat, ohore handia zela dantzariarentzat parte hartzea eta "pekatu" handia ez dantzatzea.

Hemeretzigarren mendeko berri-rik ere badugu ezpatadantzaren inguruan,

nahiz eta berri tristeak izan. Mende horren hasieran, eta hemezortzigarren bukaeran, Juan Ignacio de Iztueta zaldibitarrak lan ikaragarria egin zuen han-hemengo dantzak ezagutzuz, bilduz eta irakatsiz. Horren fruitu "Gipuzkoako dantza gogoangarrien kondaira edo historia" ize-neko liburua izan zen.

Iztuetaren ikasleetako bat Jose Antonio Olano izan zen, hau ere zaldibitarra eta, ziote-nez, dantzari bikaina.

Honek dantzari txiki talde bat sortu omen zuen Ordizian, eta Iruñean eta beste zenbait tokitan arrakasta haundia lortu ondoren, 1882. urtean Antiguara etorri omen zen talde hori. Jose Antonio Olanok, nahiz eta 65 urte beteta izan, berak ere dantzatu nahi izan omen zuen, eta bai dotore dantzatu ere jende guztia harrিতuta utziz.

Baina dantza bukatzean ondoezik sentitu omen zen, eta Zumarragara oinez jaitsi ondoren, etxera joan eta oheratu egin omen zen. Biharamonean Bilbora, han eskeini behar zuten emanaldi baten gorabeherak zehaztera joan omen zen, baina Atxuriko geltokian berriro ondoezik sentitu eta Ordizira itzuli omen zen lehenengo trena hartuta. Ordizian Marzelino Agirrezabala

medikuak ondo begiratu eta hesteak lehertuta zeuzkala, eta lehenbaitlehen testamentua egiteko esan omen zion.


Olanok bere azken ordua bazetorkiola ikusirik, bere ikaslea zen Jose Gregorio Aramendiri deitu eta bera hiltze-az zegoenez, Jaungoikoaren izenean eskatu omen zion jarrai zezala aurrera dantze-kin, hauek gal ez zitezten, eta dantzarako zituen jantzi, oinetako eta tresna guztiak berari eman ondoren hil omen zen.

Zumarragan ezpatadantza noiz hasi zen ez badakigu ere, badakigu, ordea, gaur egunera arte iritsi zaigula, bukatzean daukagun XX. mende honetan ere eutsi diongu ohiturari alegia.

Eta XVII. eta XVIII. mendeetan gertakizun ikusgarri horien antzekorik

ez badugu ere, badakigu jakin XX. mende honetan, behin baino gehiagotan, nahikoa lan egin behar izan dela dantzariak prestatzen eta dantza taldea osatzen ere nahikoa komeria izan dela.

Joxe Odriozola, "Txato" zenak



Joxe Odriozola, "Txato"k lan itzela egin zuen Zumarragako ezpatadantzaren alde.

zioenez, behin lau ordu inguru egon behar izan omen zuen telefonoz hitz egiten soldaduzkan zegoen dantzari bati hurrengo egunean dantzara etortzeko baimena lortzeko.

XX. mendeko zenbait gertakizun

Beste behin ia-ia belauniko jarri behar izan omen zuen dantzari baten aurrean, bezperan entsaio bat egin ondoren Santa Isabel egunean dantza zezan.

Zumarragako festetan ohitura izan zen zenbait urtetan soldaduzkan egon eta dantzatu behar zuten gazteentzat Udala baimenak lortzen ahalegintzea. Horrela etortzen zen festetara bestela

herritik urrun egon beharko zukeen zenbait gazte.

Beste dantzari bat, berriz, 1972 urtearen inguruan poliziaen eskuetan detenturik zegoelarik, dantzatu beharra zuela eta libre utzi zuten. Beraz, XVII. eta XVIII. mendeetan ezpatadantza zela medio gazte batzuk kartzela ezagutu behar izan bazuten, XX.ean behin behintzat kontrakoa gertatu zela esan liteke.

Dantza hau gure egunetara iritsi dela esan dugu lehen, eta hori horrela izan bada jende askoren lanari esker izan dela ez dago dudarik. Hala ere aipatzekoa iruditzen zaigu Julian Zabaletak mende honen hasieran egindako lana, dantzari asko atera baitzuen eta beti ere erakuste lanetan aritu baitzen 1945. urtean hil zen arte.

Honen eskutik ikasi zuenetako bat Joxe Odriozola, "Txato" izan zen, eta honen lana ere ez zen ez makala izan. Berak hamar urtez dantzatu zuen ezpatadantza 1935-45 tartean (gerrate garaian ere urtero dantzatu omen zuen ezpatadantza) eta 1952 urte-tik 1982an hil zen arte, bera arduratu zen dantzariak bilatu eta prestatzeaz.

Azken 20 urte pasatxo hauetan ere aipatzekoa da "Irintzi" taldearen lana, bera izan baita eginkizun honen arduraduna.

Musika alorrean, berriz, Antziñako Ama txistulari taldea egiten ari den lanaz gain, ezin aipatu gabe utzi Paxkual Okariz eta Martin Zenekorta, "Tximista" txistulariak eta Jose Sampedro danborjolea, hirurak ere 50 urte baino gehiago egin baitzituzten ezpatadantzaren doinua urtero-urtero xuxen eta dotore jotzen, mundu honetatik joateko ordua iritsi zitzaizen arte.


* Artikulu hau Joxe Mari Lasak Txistulari aldizkariko 150. alerako idatzi zuen eta bertatik hartu dugu.

Euskal Party, Urretxun sortutako informatikazaleen festa

Sabino San Vicente urretxuarrak txikitatik du ordenagailuekiko zale-tasuna. 13 urterekin Spectrum ordenagailu bat oparitu zioten, ondoren Amiga bat erosi zuen eta jokuez aspertzen hasi zenean programatzen hasi zen. Duela urte batzuk ordenagailuen festa batera joan zen Danimarkara beste lagun batzuekin batera eta bertakoa ikusirik, Urretxun antzeko zerbait antolatzea pentsatu zuten. "Euskal Amiga Party" izena eman zioten eta 30.000 pezeta eskaxekin eta Urretxuko udalaren laguntzaz, aurrera ateratzea lortu zuten. Lehenengo edizio hartan Amiga ordenagailuak bakarrik eraman zitezken eta 35 lagun inguru bildu ziren. Orduetik hona gauzak asko aldatu dira: azkeneko lau urteetan Donostian ospatu da eta jada PCak dira arrakasta gehien duten ordenagailuak. Aurtengo "Euskal Party" a Donostiako Belodromoan izango da uztailaren 23tik 25era eta 1000 lagun inguru eta 500 ordenagailu espero dituzte.

Zer da zehazki "Euskal Party"?

Motorrean ibiltzen den jendeak leku ezberdinetan elkartzeko ohitura duen bezala, guk ere hala egiten dugu. Bertan lan ezberdinak egiten ditugu ordenagailu bidez: grafikoak, musika, animazioa... eta lehiaketa moduan antolatzen dugu. Maila ezberdinak daude eta lanak pantaila erraldoietan ikusten dira. Ondoren epaimahaiak bere erabakia hartzen du. Ordenagailu guztiak sarean daudenez, joku ezberdinetan ere denok parte hartu eta txapelketak antolatzen ditugu. Bestalde, internet konexioa ere badu-



ETBk pantaila erraldoiak uzten dizkie partaideen lanak ikusi daitezen.

gu, Euskaltelek muntaia osoa egiten baitugu. Informatikaren inguruan hitzaldiak ere antolatzen ditugu eta beste txorakeria batzuk ere egiten ditugu: diskette jaurtiketa esaterako. Bertan parte hartu nahi dutenek 3.500 pezeta ordaindu behar dute, baina bisitariak dohainik sartu daitezke.

Hasieran "Euskal Amiga Party" izena zuen, zer dela eta aldaketa?

Garai hartan Amiga ordenagailuak onenak ziren diseinu, grafiko, irudi... kontuan. Hau dela eta ordenagailu hauek genituen jendea biltzen ginen. Baina hirugarren ekitaldian, Tolosan, PCa zuen jendea ere etorri zen

eta orain jada ekartzen diren ordenagailu gehienak PCak dira. Hala ere, Amiga ordenagailuek xarma berezia dute zenbait zaletuentzat eta oraindik ere oso lan onak egin daitezke ordenagailu hauek erabiliz. Izan ere, gero eta ahalmen handiagoa duten ordenagailuak daude, baina aurrean ideia onak dituen pertsona ez badago alferrik galtzen da.

Izenaz gain, zer beste aldaketa ezagutu ditu zuen jai honek?

Azken urteotan Donostian ospatu dugu, hasieran Carmelo Balda pilotalekuan, gero kiroldegian eta orain belodromoan. Urtetik urtera hazten joan da eta egun estatu mailan dagoen "party" garrantzitsuena da. Egun 1000 lagun eta 500 ordenagailu elkartzen gara, pantaila erraldoiak jartzen ditugu, internet konexioa dugu, kate pribatu bat dugu eta gure



"1000 partaide eta 500 ordenagailu espero ditugu aurtan"

**“Comando joku
arrakastatsua
hemen sortu zen”**

lanak belodromoan bertan eta Donostia osoan ere ikus daitezke, estatuko toki ezberdinetan autobusak antolatzen dira Donostiara etortzeko, Frantzia eta Italiatik ere jendea etortzen da...

Guzti honek antolaketa lan izugarria eskatuko dizue...

Dena oso ondo lotu beharra dugu. 500 mahai eta aulki inguru prestatu behar ditugu, argindar instalakuntza Andoaingo zine eta bideo eskolakoek egiten dute, Euskaltel ordenagailu sarea eta internet konexioa prestatzeaz arduratzen da... Egunero argindarra zaintzen duten inspektore pare bat etortzen dira eta oso ondo zaindu beharra dugu. Hau dela eta sistema elektrikoa erostea erabaki genuen eta 3 milioi kosta zitzaigun. Pentsa, Urretxun antolatu genuen festaren aurrekontua 34.000 pezetatakoa izan zen, egun 10 milioitakoa da. Diru-sarrera nagusia partaideek ordaintzen duten sarrera dugu. Bestalde, urtetik urtera hazten joan denez, gero eta leku gehiago behar dugu. Gainera, kanpotik jende asko etortzen denez, belo-

dromoa ere egokitu beharra dugu eure zakuak eraman eta bertan lo egin dezaten.

Patrozinatzaile edo laguntzaile gehiago ba al dituzue?

Esan bezala, Andoaingo Zine eta Bideo Eskola argindarraren muntaiaz arduratzen da eta Euskaltel ordenagailu sarearen konexioaz eta internetaz. Hauetaz gain, Kutxa, Halcón Bidaiak, Creative Labs eta PC Actual aldizkariak ere laguntzen gaituzte.

Hanbeste hazi izanak, zuen topaketa hori oso garrantzitsua bihurtuko zuen...


Egia esan, gauz politak atera dira bertatik. Egun ordenagailua duten gazte gehienek etxean duten Comando jokoaren ideia Euskal Partyn sortu zen eta bertan bildu ziren lagun batzuek atera dute aurrera. Bestalde, urtero informatika enpresa ezberdinetako jendea etortzen da Donostiara bertan egiten diren lanak ikus-



tera eta etorkizuna duen gazteren bat ikusten badute enpresan lana eskeintzen diete.

Edonork parte hartu al dezake “Euskal Party”n?

Normalean ikasle jendea biltzen dugu, 15-30 urte bitartekoa. Zaletasunak gaztetan sortzen dira eta ordenagailuak umetatik ezagutu dituzten bakarrak gazteak dira. Hala ere, zaletasun handia duen edadeko jendea ere biltzen da. Dena den, ordenagailu bat duen edonork izena eman eta bertara etortzeko aukera du. Bertan besteen lanak ikusi, jolastu, interneten nabigatu eta ikasteko aukera dago. Lan asko lehen aldiz ikusten dituenak ezin du sinetsi ordenagailuz halakorik egin daitekeenik. Gogoratu ikusle bezala joateko ez dagoela sarrera ordaindu beharrik eta informazio gehiago lortu edo bere izena eman nahi duenak **WWW.Euskalparty.ORG** internet orrian du aukera.



Sekulako jendetza biltzen da urtero Euskal Party ordenagailuzaleen bilkuran.

Igor Olaizola: Herritar bat moda desfileetan

Igor Olaizola urretxuarrak 22 urte ditu eta duela lau urte Azeitiko institutuko ikasleek ikasbidaiarako dirua lortzeko antolatu zuten modelu desfilean parte hartu zutenetik, hainbat aldiz aritu da modelu lanetan. Nahiz eta ez duen izan ogibidea, 15 bat modelu desfiletan parte hartu du jada. Hala ere, ez du uste modelu bezala profesionalki aritzerik izango duenik. Izan ere, Madril edo Bartzelonan egonda soilik jo omen daiteke aurrera eta oraingoz ez dago herrian duen lana utzi eta arriskatzeko asmorik.

Nolatan hasi zinen modelu lanetan?

Azkoitiko institutuko jendea ezagutzen nuen eta ikasbidaiarako dirua ateratzeko antolatu zuten desfilean parte hartzea eskeini zidaten. Baiezkoa eman nien eta bertan Azeitiko Kimets ileapaindegikoekin harremanetan jarri nintzen. Hauek Donostiako agentzia bateko nagusien lagunak dira eta jendea behar dutenean deitu egiten didate.

Zer lan egin dituzu orain arte?

Batez ere herrietan aritu naiz lanean, diskoteketan... Beti erropa desfileak egiten ditut, bai kanpoko erropa zein barrukoa. Hasieran lotsa ematen zidan, baina orain naturaltasunez egiten dut. Hau norberaren izaeraren arabera da: pertsona bat itxia baldin bada ez da desfile batean ateratzen, baina niri ez dit lotsarik ematen. Behin atera ondoren ez duzu atzera egiterik.

Zein etxerekin lan egin duzu?

Duela bi hilabete inguru ezkontza denda batentzat lan egin nuen, hilabete beranduago Azeitiko dendariantzat... Desfilea antolatzen duten dendariak agentziara deitu eta hauek modeloak bidaltzen dituzte denda horietako erropa jantzi dezaten.

Gustatuko al litzaizuke modelu munduan era profesionalean jarraitzea?

Agentzikoek deitu didate jarraitkortasun handiagoz lan egiteko, baina ez

du astirik. Egun lanean ari naiz eta ez naiz ausartzen modeluen munduan burube-larri sartzen. Agentziakoei orainarte bezala jarraitzea nahiago nuela esan nien. Modelu lana 30-35 urte ingururekin amaitzen da eta adin horretara heldu arte sekulako arrakasta izan ez baduzu, ondoren hutsetik hasi beharra duzu.

Zer nolako giroa bizi da zuen mundu horretan?

Modeluen artean lehia handiegia dago. Haserreak eta saltsa izaten dira batak besteak baino desfile gehiago egin dituelako. Nik lehenengo aldiz agentzia horrentzat lan egin nuenean, lehenago beraientzat lan egin gabe, beste hiru desfile eskeini zizkidaten. Gainontzekoek ez ninduten begi onez ikusi. Jende jatorra ere ezagutu dudan arren, dagoen lehiakortasuna handiegia da.

Prestaketa fisikorik egiten al duzu?


Noizean behin soilik aritzen naitenez, ez dut prestaketa berezirik egiten. Profesionalek seguraski gimnasioan ordu asko emango dituzte, baina nik ez dut halakorik egiten.

Gehiago ligatzen al da modelu izanda?

Jende asko ezagutzeko aukera izaten da, baina nik aspaldidanik neskalaguna dudanez, ez dut batere ligatu. Neska edo mutil-laguna ez duten modeluek jakingo dute ligatzen den ala ez.

Anorexia arazoak hain arruntak al dira modeluen artean?

Nesken artean batez ere, nik uste



baietz. Neska bat desfile batean ikusi eta handik hiru hilabetetara kilo dexente galdu dituela konturatzen zara. Agentziak ez gaituzte presionatzen, ez gaituzte dieta zehatz bat jarraitzera behartzen. Norberak bere burua zaindu behar du. Desfile batean Lorena Bernal missarekin atera nintzen eta orduan orain baino kilo gehiago zituen. Aurten ikusi dudanean berehala konturatu naiz argaldu dela. Baina, noski, neska hau beste maila batean dago eta bere itxura gehiago zaindu behar du.

Modeloen mundu hau, beti nesken kontutzat hartu izan da.

Neska bat modelu izatea beti gauza arruntzat hartu izan da eta mutila eta modeloa zarela esatean jendea gehiago harritzen da. Gizonezko modelu gutxi gaude eta baliteke neskek baino zertxobait errazago izatea mundu honetan lan egiteko. Kanpoko egoera ez dut ezagutzen, baina hemen behintzat oso mutil gutxi gabiltza. Hasi nintzenean familiakoek eta lagunek farre egiten zuten, baina orain gauza normaltzat hartzen dute.

-Zer iruditzen zaizu irailleko azterketak kendu izana?



Ruben Gabilondo

Zenbat eta aukera gehiago izan orduan eta hobe. Orain ditugun aukerez gain, irailan ere azterketa izatea nahi nuke.



Haizea Arranz

Orain gauden moduan hobeto gaude. Honela azterketa guztiak ekainean egiten ditugu eta udan ez dugu ikasi beharrik.



Maite Arozena

Hobe da azterketak ekainean izatea. Bestela ikasgaiaren bat utziz gero uda osoa ikasten pasa behar da eta askotan gogo gutxi izaten dugu.




Josune Goenaga

Ekainean azterketa guztiak izatea hobe da. Honela uda libre dugu eta ez dugu ikasten jarraitu behar.



Ainhoa Elorza

Ekainean beste aukera bat izatea oso ondo dago, baina iraillekoak jarraitzea nahiko nuke.



Eneko Kortabarria

Irailan azterketak izatea nahiago nuen. Orain ez dugu denbora handirik ikasteko eta udan berriz denbora asko dugu. Egunean pixka bat ikasiz irailan dena gainditzeko aukera dago.

BIONA

AROTEGIA

Altzariak neurrira

☎ eta faxa: 72 02 55
Erratzu, z/g URRETXU

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:

+kutxa fundazioa
fundación

EDURNE

JANTZIDENDA

Piedad, 18 ☎ 943 721417 ZUMARRAGA



Lanbasa

- Dietetika
- Estetika

Bidezar, 7 ☎ 72 36 52

Keros
Enmarkatzeak
Arte ederrak
Dekorazioa
Opariak
Labeaga, 35 Urretxu ☎ 72 41 61

Bisasti AEK Euskaltegiaren gutuna

Kaixo lagunok!

Gure herriotan AEK desagertu zela ia urtebete beteko den honetan, berriz ere erakunde honen martxan jartzea iragartzera gatozkizue.

Jakina da, Urretxu-Zumarragan euskarak eta batez ere, bere erabilerak pairatzen duen egoera kezka-garria. Zentzu honetan, gure herrien euskalduntze prozesuan, AEKren beharra ezinbestekotzat jotzen dugu, denon artean jakina baita Euskal Herri osoan AEK-k betetzen duen papela.

Orain urte asko herri mugimenduetatik sortutako erakunde honek, Euskal Herriko bazter izkutueta-raino helduz, milaka lagun euskalduntzea lortu du.

Horretan datza bere bertutea, herritik sortu eta betidanik herrian bizi izan dela eta honek eman dio herria berreuskalduntzearen beharra ezagutu eta horren arabera metodologia egokia prestatzeko gaitasuna. Eguneroko bizitzan gertatzen diren egoeratan oinarrituta, egoera konplexuegoetara heltzea ahalmentzen duen metodologia. Azken batean, gizartearen euskararen normalkuntza ekarriko duen normalkuntza.

Euskarak guztion lanaren beharra daukala garbi dago. Ahalegin eta aukera ezberdin guztiak beharrezkoak dira. Zabal diezaiogun bada atea AEKri eta aldi berean eman dezagun euskararen aldeko lanean aurrerapausu bat.

Zentzu honetan eta gure herriotan AEKren beharra ikusiz, herritar talde batek proiektu hau aurrera eramateko lanari ekin

diogu. Hala ere, euskarak gu guztion lana behar duela uste dugu. Horregatik AEK euskara maite dugun guztion proiektu bihurtu beharra daukagu.

Has gaitezen bada lanean, elkarrekin hazia erein eta laister batean guztiok jasoko ditugu bertatik fruituak.



AEKak antolatzen duen Korrika Zumarragan.

Zintzo-Mintzok herriko jatetxeak euskalduntzeko plana jarri du martxan

Aurtengo apirilean Zintzo-Mintzo elkarteak herriko Merkataritza Euskalduntzeko Plana jarri zuen martxan bi udaletxeen babesarekin. Euskararen normalkuntza lanetan, Merkataritza Euskalduntzeko Planak azken urteotan ugaldtu egin dira Euskal Herrian. Alde batetik, udale-txe eta diputazioak bultzatzaile indartsuak izan dira.

Bestetik, modu honetako plangintzak egiteko lan tresna oso erabilgarriak kaleratu dira. Horrez gain, merkataritzan lanean dihardutenak kalitatezko zerbitzu bat eskeintzeko bidean euskararen garrantziaz ohartzten hasi dira. Martxan dauden Merkataritza Euskalduntzeko Planen gehiengoaren lan esparrua herriko merkataritza osoa da. Zintzo-Mintzoren kasuan berriz, esparrua herriko jatetxeetara mugatu da, esperientziaren emaitzen arabera eremua zabaltzen joateko asmoz. Plana diseinatu ondoren

zazpi jatetxeetan aurkeztu zen: Santa Barbaran, Etxaburun, Iburretan, Ezkiotarran, Kabian, Etxe Azpin eta Kortan. Harrera oso ona izan zuen denen aldetik eta Zintzo-Mintzorekin elkar-lanean hasteko prest agertu ziren.

Hurrengo jatetxe bakoitzak dituen beharren azterketa egitea izan zen. Azterketa honek jatetxeek behar oso desberdinak zituztela erakutsi zuen. Hori dela eta, errotulazioa eta barne erabilpe-

nerako dokumentazioa hautatu ziren lanean hasteko. Hau da, kartak euskaratzea, fakturak elebrietan lortzea...etab.

Plana hasi besterik ez da egin, baina alferrikakoa izango da jatetxeak euskalduntzea euskal bezerorik ezean, beraz, hona hemen herritar guz-

tien parte-hartzearen zai dagoen ekimen bat.



“Iparragirre Erro-Urratsak” liburuaren aurkezpena

Ekainaren 22an “Iparragirre Erro-Urratsak” liburuaren aurkezpena egin zen Urretxuko udaletxean. Liburuaren egileak Gontzal Mendibil kantari Zeanuriarra, Jose Olaso, Juan Agirre eta beraien zenbait laguntzaile dira. Liburuaren babesleak Eusko Jaurlaritza, autonomi erkidegoko hiru Foru Aldundiak, Kutxen federazioa, Mapfre, Zeanuriko Udala eta Urretxuko Udala izan dira.

Liburuaren egileek biografi sendo eta oso landuaren beharra ikusi eta Joxe Mari Iparragirrek bere bizitzan egin zuen ibilbide luzea burutu dute berak utzitako aztarnen atzetik: Euskal Herrian bertan, Frantzian, Espainian, Argentinan eta Uruguayan hainbat datu interesgarri bildu dituzte euren libururako.

Ikerketa lan honen guztiaren emaitza ia 700 orrialde dituzten bi liburuki dira. Bertan, aurkitu diren Iparragirreren gutun guztiak; musika partiturak, olerki, eta abestiak eta egun mundu osoan zehar barreiatuak dagoen bere familiaren genealogia aurkitu ditza-kegu.

Lehenengo liburukiak, besteak beste, “Iparragirre izena eta izana” deituriko biografia luzea agertarazten digu. Biografia hau tajutzeko Jose Olasoren eta Juan Agirrereren lana aztertu da eta material



P. González, C. Garaikoetxea, J.C. Alli, P. Antoñana eta G. Mendibil besteak beste.

berri ugari agertzen da: datu historikoak Iparragirreren ibilbidea eta egintza hobe ezagutzeko, eta era berean euskaldunok bizi izandako garai historikoaren azterketa.

Bestetik, gure kobalariak eginko lan poetiko-musikala ere biltzen du lehen liburuki honek. Hauetako asko orain arte izkutuan izan dira. Bitxikerien artean

esan daiteke Joxe Mari, Ameriketara idatzitako hiru salbu, bertso guztiak euskaraz idatzi zituela. Bere gutundegia, berriz, gaztelaraz egin da gehienbat. Lehenengo liburukia Iparragirreren familiaren genealogiaz amaitzen da.

Bigarren liburuan 28 kolaboratzailek idatzirik lanak agertzen dira. Besteak-beste, Joxe Mari Satrustegi, Bittoriano Gandiaga, William Douglas, Pablo Antoñana, Alfonso Sastre, Xabier Arzalluz, Karlos Garaikoetxea, Juan Cruz Allik... Iparragirre eta bere garaiaz dute ikuspuntua azaldu dute. Baita Pello González, Urretxuko alkatea eta Antón Arbulu, Zumarragoak, ere.

Hauetako gehienak Urretxuko udaletxean egin zen aurkezpenean izan ziren. Bertan, Pello González alkatea, Gontzal Mendibil eta bere laguntzaileak aurkezpen lanetaz arduratu ziren. Gontzal Mendibilek liburua prestatzeko burutu duten ibilbidearen berri eman zuen eta urtebeteko epean “Iparragirre hegalaria” ikuskizuna Hegoamerikan aurkezteko asmoa duela esan zuen.

Urretxuko seme kuttunaren bizitza eta lana biltzen dituen “Iparragirre Erro-Urratsak” liburua ez dago oraindik salgai liburutendetan, dena den, erosteko asmoa duenak aurki aukera izatea espero da.



Gonbidatuek arretaz jarraitu zuten liburuaren aurkezpena.



Agustín ez hadi despistatu Luciano hire alboan zegok eta bere bikoteari keinua pasatzen. Duplexak dituela uste dugu. **Zorionak** eta ondo pasa!



Luciano, tranposo xamarra omen zara musean... Utzi izeaiozu noizbati Agustini ere bazkalaribakto partidatxoa irabazten, motel. **Zorionak!**



Iñake ea kamerari aurrez-aurre begiratzen diozun... Zer ikusi duzu albo batera begira hain gustura egoteko? **Zorionak** eta ondo ibili!



Gran Wyoming! Non utzi duzu Santiago Segura? A, ez! barkatu, ospitaleko iturgina zara eta! **Zorionak** Jon eta ondo ibili!



Aitzol hi bai haizela euskaldun zintzoa: pilotari eta trikitalaria. Harriak jasotzea eta RH negatiboa izatea bakarrak falta zaik motel! **Zorionak** eta ondo pasa!



Elizabet, pixka bat beherago begiratzen baduzu betaurrekoak eroriko zaizkizu, neska! Ez zaitetz lotsatu kamera aurrean! **Zorionak** eta erosi antiojuak eusteko soka bat.



Iñigo, hori duk hori mutil formal! (Gure ustez jaunartze egunean soilik, baina tira!). **Zorionak** eta emaiok egurra Sa Pintori!



Jon, nor nahi duk engainatu zintzo aurpegi hori jarrita? Ama behintzat hurrengo bihurrikeriaren zain izanog duk! **Zorionak!**



Alexander edo Alessandro? Kostako zaik azkeneo hau bezain "pajaroa" izatea... **Zorionak** eta ondo ibili!



Eva Maria se fue buscando el sol a la playa... Baina uretan sartu baino lehena jaunartze jantzia kendu ezazu! **Zorionak** eta ondo pasa!



Ione, ez zara ba Goenkaleko okina bezain berritsua izango? Katekesiko lagunak gertu badabiltz, ez dakigu ba... **Zorionak** eta ondo pasa urtebetetze eguna.



Jonmikel hi haiz hi Webmaster puska! Hartzak lasaitu motel! Ea uztailean behingoz afaria egiten diagan. **Zorionak** eta ea gonbidatzen gaituan.



Ariadna, eulia ez, putre bat sartuko zaizu zuri ahotik aurki! Bazkaltzeko ahoa ixten al duzu? **Zorionak** eta ondo pasa urtebetetze eguna.



Frank oraingoan ere gustura ibiliko haiz garagardoa edaten eta saltxitxak jaten! Eskerrak Euskal Herrira etortze haizenean ondo zaintzen haugun. Aufidersen!



Iraia hori da hori kamerari irrifarre egitea! Horrela jarraitzen baduzu telebistara eramango zaituzte azafata. **Zorionak** eta ondo pasa urtebetetze eguna.



Joseba gauetan irtetzen hasi zarela badakigu, formal ibili zaitetz gero! (ea zure bizilaguna baino formalago ibiltzen zaren). **Zorionak** eta asko ligatu festetan!



Balentxi oraingoan hiri tokatzen zaik adarjotzea jasatea. Ez haiz asko larrituko ez, ziur hi ere hurrengo prestatzen ariko haizela jada. **Zorionak!**



Haritz, zertan ari zara lurrean botata, motel? Ama gozoa jarriko da etxera prakak zikin-zikin eginda heltzen zaren! **Zorionak!**



Jaime alaitu ezak aurpegi hori motel, festak dituk eta! Santa Isabeletan aurpegi horrekin ateratzen bazara



Joxemanuel, badakigu suhia zuri pelota egiteko zure pausu berdinak jarraitzen ari dela. Perkusioa jotzen alajaina! **Zorionak** Manolo er der bombo!



Begoña, Begoñita, zu bai zarela polita. (Iaz berdina jarri genizun, egia izango da gero!). **Zorionak** eta ondo ibili!



Ibon, dagoenean bonbon eta ez dagoenean egon! Esaiok Josebari paga igozteko. **Zorionak** eta ondo ibili oportetan.



Janire elegante joan zinen gero jaunartzerara! Inñigorekin ligatu al zenuen? Opariak behintzat ziur ugari jaso zenituela. **Zorionak!**



Serio xamar ikusten zaitugu **Joxe**. Ea motel, festak aurki datoz eta alaitu aurpegi hori! **Zorionak** eta ondo pasa urtebetetze eguna!



Bixente, txakurra- ren buztana tente! Ederki pasako duk hik hire urtebetetze eguna... **Zorionak** eta formal ibili Zumarragako jaietan.



Ignacio oraingoan ere ez haiz gaizki ibiliko! Ez dauk aurpegi txarrik behintzat. **Zorionak** eta ondo ibili.



Bud Spencerrek ardura hartu duenetik Antioko eliza sekula baino hobe zaindua dago. **Zorionak** Jesus eta segi orainarte bezain fin.



Joxe, nondik ateratu duzu argazki hori? Ez zuten ba Carabanchelgo komisaldegian orman jarrita izango? **Zorionak** eta ondo ibili urtebetetze egunean.



Casi izenik gabe geratu zara neska! Euskaraz ia-ia itzuli al dezakegu? **Zorionak** eta barkatu tontakeria hauek idazteagatik.



Igor norbaiti egurra emateko prest hago-la zirudik. Ea nor harrapatzen duan parean. **Zorionak** eta ondo ibili!



Jokin dirudizun bezain zintzoa al zara? Badaezpada ere ez gara zugandik oso hurbil ibiliko... **Zorionak** eta ondo pasa urtebetetze eguna.



Juan, Perikito y Andrés. Oraingoan gainera Inñigo Garrido ere ondolan duzue. Zuek bai bizi! **Zorionak** eta ondo pasa urtebetetze eguna!



Cristobal, zuk duzu zuk plazagizon itxura! Ez dakiguna da plazan zer egiten duzun. **Zorionak** eta ondo pasa urtebetetze eguna.



Iker, kezkatuta zaudela dirudi. Lasai gurasok zerbait oparituko dizute eta! **Zorionak** eta ondo ibili.



Jon, nora zoaz bihurri aurpegi hori duzula? Zure klaseko neske lasaitu ederra hartuko zuten oporrak helitzean! **Zorionak.**



Juanito Navarro, non utzi dituzu Pajares, Estesos, Ozores eta Alfredo Landa? Ez zara zu galduko, ez! **Zorionak** eta ondo pasa zure urtebetetze eguna!



Leire lekaiame sartzekotan al zabilta? Ondo pentsatu, gero ez duzu eta atzera bueltzerik izango. **Zorionak** eta ondo pasa.



Mikel, hi bai morrosko earra! Hamaika txuleta eta babarrun plater jandakoa izango haiz! **Zorionak** eta ondo ibili.



Maria hori bai Profiden irrifarra! Dentistak komisioa eman beharko dizu propaganda egiteagatik. **Zorionak!**



"La máquina de la verdad" aurkezten zuen tiporen izena Julián zela uste genuen. **Zorionak** Luis eta segi egiazen bila jo eta ke!



Guk ere **Mila** durokoak txanponak baino gus-turago jasotzen ditugu. **Zorionak** Mil a gritos!



Cristi... ez zara ba zu izango Antena3en programa patetiko hori aurkezten duena? **Zorionak** eta ondo ibili!



Maite Pottokinaren antza hartu dizugu. Kontuz ibili, mundu honetan Gargamel asko dago eta! **Zorionak.**



Rosi, argazkian oso ondo ikusten ez zaitugun arren, zure izen-kide madrildarra baino ederragoa zarela uste dugu. **Zorionak!**



Pello ez al zeneukan argazki hoberik? Emaztea eta arreba txukun aterako dira eta zureak mosaiko bat dirudi! **Zorionak!**



Mari, segi orain arte bezain irrifartsu eta ondo pasa ezazu zure urtebetetze eguna. **Zorionak!**



Xanti, Xanti, Xanti txiribi, txiribitero... Oraingoan ere afari batetan atera dizute argazkia! **Zorionak!**



Ez genekien **Rosa Mari Aldama** gure laguntzaile paregabea Napoleoni ere laguntzen ibili zenik! **Zorionak** eta ondo pasa!



Mari Carmen, non utzi duzu Doña Rogelia? Ea trajez aldatzen duzun pixka bat ligatu dezan. **Zorionak** eta ondo pasa urtebetetze eguna.



Tomax, zuk bai jakin... ziu gaude Aintzanek ondo zainduko zintuela bere etxean egon zaren egunetan. **Zorionak!**



Tomaxa hori da hori neska perka-xa! Ondo pasa urtebetetze eguna familia guztiarekin batera. **Zorionak!**



Mari Carmen zuri jada ezin dizugu Doña Rogeliaren ton-tokeria esan. Zer egingo diogu bada! **Zorionak!**



Usua oraingoan senarra da hegan egin duena eta orriaren beste puntan jarri zaizu. **Zorionak** eta ondo pasa urtebetetze eguna!



Arantzazu, hobera egin duzu azkenaldi honetan! Hurrengoan ez zaitetz hain lotsatia izan eta zure argazkia ekarri ezazu. **Zorionak!**



Maria ez zaitetz hainbeste hurbildu fotomatonera, buruaz kristala hautsiko duzu eta! **Zorionak** eta ondo pasa urtebetetze eguna.



Visi, anaia bikia-ri emaztea eta zure ondoan jar-tzeko esan diogu, baina dirudienez ez zuen nahi. **Zorionak** eta ondo ibili.



Jon, irakaslearen oharra: bateria,neska bezala, maitasunez laztandu behar da. **Zorionak** eta beti bezala, atera garagardo batzuk.



Mariangels ser modus sabilta? Guk nahi dizugu felizitatu, bada-kigulako zure sorionak zatzaiz-kigula. (Ea hau zuzentzerik duzun).



Unai, nora joan behar zara opo-rrerara oraingo-an? Ez zaitetz berriro Salamancako katedralean kotxe eta guzti sartu! **Zorionak!**



Nabari da bai lehengusuak zaretela... biak atzean gelditu zarete. Orain ere txikitian bezala burrukan? **Zorionak** Nerea!



Mari Jose ea kamera berria erosten duzun, oraingo honek ateratako argazkietan ezin zaitugu ezagutu eta! **Zorionak!**



Anton, zuk bai itxura elegantea! Ea gainontzeko-ek ikasten duten eta zu bezala tra-jea jartzen duten argazkian ateratzeko. **Zorionak!**




Ander ze habil? azkena geratu haiz motel! Lasai ez haiz garagor-do batzuk ateratz-eaz libratuko eta! **Zorionak!**

MASTER HEZKOR

Zumarragako elektrogailu erakusketarik handiena!

Prezio eta modeloetan aukera aparta

Urdaneta, 5 ☎ 72 41 31
ZUMARRAGA



Edergintza

Edergintza tratamenduak
Depilazioak
Solarium

Labeaga, 2 **URRETXU** ☎ 72 25 13

UROLA

ELEKTRATRESNAK

☎ 943 72 02 15

Faxa: 943 72 52 91

S. Esnaola, 2 **ZUMARRAGA**



alejandro albisua

kirol gaiak

Soraluze 6

☎ 72 52 22

ZUMARRAGA



GUREA

Iturgintza



Bainurako altzariak
Gas instalazioak
Berogailuak
Bainuak...

Barrenkale 17- ☎ 72 12 67

20700 **URRETXU**

Amaia Irureta, Araba Euskarazeko kantuaren eta Kontrairo taldearen ahotsa

Amaia Irureta, Gasteizen bizi den urretxuarra, euskal filologian lizentziatua da eta AEKko irakaslea. Baina honetaz gain, "Bazen Garaia" diskoa grabatu berri duen Kontrairo musika taldeko abeslaria eta flauta jolea ere bada. Gainera, aurtengo Araba Euskarazeko kantuaren sei abeslarietako bat izan da.

Gasteizko Kontrairo taldeak, lehen Trikitixa Kontrairo zenak, "Bazen Garaia" izeneko diskoa kale-

ratu berri du. Folk-rock estiloko lana da grabatutakoa eta 12 kantuz dago osatua, hitzak denak euskaraz dira. Betiko abestien bertsoak eta taldekideek sortu edota moldatutako kanta herrikoien nahasketa da Amaia iritziz diskaren berezitasunik nagusiena. Duela hiru urte grabatutako lehen diskoa baino landuagoa, profesionalagoa eta kalitatez hobea omen da.

Ze ezaugarri ditu bigarren disko honek?

Folk-rock estiloa lantzen dugu eta horretarako betiko abestien bertsoak eta guk moldatutako Euskal Herriko kanta herrikoiak nahastu ditugu. Instrumento asko nahastu ditugu, musika taldeek ohikoak dituztenak, (kitarra, baxua, bateria...) eta Euskal Herriko folkloreakoak, (soinua, panderoa, alboka, gaita...) hau da behar bada berezitasunik aipagarriena. Gainera talde gasteiztarra izanik, Arabako folkloreako abestiak ere jaso ditugu, Biasteriko jota bat bertsiatu egin dugu.

Desberdintasun handia al dago lehenengo diskoarekin alderatuz?

Lehenengo diskoan ez geunden orain gauden bezala prestatuta. Taldea asko jantzi da hiru urte luze hauetan emandako zuzeneko kontzertuei esker. Disko hau grabatzeko ordu askoz egin dugu lana estudioan bertan. Bost hilabetez jardun gara Sonora estudioan asteen bi, hiru eta zenbaitetan bost egunetan entzaituz. Hau guztia etekin antzematen da, nahasketa honetatik lortzen den emaitza da Kontrairo. Disko honetan kolaborazio ugari izan ditugu, taldekide ohiak, Gasteizko udal folklore eskolako gaiteroak eta bereziki Niko Etxarten kolaborazioa eskertu nahi genuke. Euskal Herriko beste muturretik etorri izanagatik, ere soinua jotzen du. Sonora taldeko Martin Guridi teknikariak ere lan

handia egin du.

12 abestiz dago osatua diska, zuek sortutakoak al dira?

Abesti guztien hitzak euskaraz dira, baina denak ez dira guk sortutakoak eta ezta euskal abestiak ere. Irlandako bi abesti bertsiatu ditugu, Mirotz rock taldeko abesti bat ere moldatu dugu, Kepa

entzuleak goza dezala da. Kontzertuetan buru belarri ibiltzea da gure asmoa, plazetan jotzea eta musika eskaintzeaz gain, gure alaitasuna ere helarazi nahi dugu. Araban dagoeneko kontzertu dezente ditugu hitzartuak eta Gipuzkoan ere joko dugu.

Araba euskaraz 99ko kantuaren abeslarietako bat ere izan zara.



Amaia Irureta zutik ezkerretik hasita laugarrena da.

Junkerak jotzen duen kanta tradizional bat edota Biasteriko jota bat ere bai. Gainontzeko sei abestiak gureak edo guk moldatutakoak dira.

Ze asmo duzue hemendik aurrera?

Diskoa dagoeneko salgai dago. IZ diskaetxean kaleratu dugu, gure asmoa

Jon Maia eta Igor Elortza bertso-lariak dira "Uztaz uzta, alez ale" abestiaren egileak, eta kantua askoren artean abesten dugu, Betegarri taldeko abeslariak, Ohiane Perea, Asier Iriondo eta Eñaut Agirre bertso-lariak, Assa ikastolako haurrek eta nik neuk. Gustura jardun dut lan horretan, talde giroan.

GELTOKIETAKO JAIAK



OSTIRALA 9

Arratsaldeko 19etan jaiei hasiera emango zaie.

Ordu berean partxis txapelketari hasiera emango zaio. Bertan edonork parte hartu dezake tranposoek ezik.

Ondoren, Aldiri K.E.ko konpartsa, Urretxuko erraldoiak eta buruhandiak, Urretxuko dultzaineroekin batera auzko txoko guztiak alaituko dituzte.

Arratsaldeko 7:30etan: Auzoko tabernetan Elorza Anaiak eta Zumarragako Trikitixak alaituriko poteoa.

Gaueko 11:30etan kontzertua Spezial Guest eta Panamatik etorritako Los Rabanes taldeen eskutik.

LARUNBATA 10

Goizeko 11etan haurrentzako jokoak Urretxuko Aisialdi taldeak antolatuak. Arratsaldeko 3etatik 4ak arte gutxienez lokuluska berrindartu ahal izateko.

Arratsaldeko 4:30etan Mus Relampagorako inskripzioa itxi egingo da Katedral's pubean. Informazio gehiago karteletan.

Arratsaldeko 7etan poteoa Zumarragako trikitixa eta Elorza Anaiak giroturik.

Arratsaldeko 7:30etan Lurra eta Irrintzi taldeek beraien agerraldia eskeiniko digute.

Gaueko 10:30etan antzerkia Domingo de Mendaraz enparantzan, "Café ... ¿teatro? dos" antzezlanarekin.

Gauerdian dantzaldia Ateneo orkestraren eskutik. Aldi berean Aldapa Txarangak auzo osoa girotuko du.

IGANDEA 11

Goizeko 7:30etan sukaldariak eta beraien morroiek otorduaren prestaketari ekingo diote.

Goizeko 9:30etan Urretxu eta Zumarragako txistulariak auzoa esnatzen saiatuko dira (ea aurten lortzen duten).

Eguerdiko 12etan Herri Meza auzoko hildakoen alde.

Eguerdiko 12:30etan Herri kirolak Domingo de Mendaraz enparantzan.

Eguerdiko 2etan asto lasterketarako hesi banaketa egingo da. Horretarako auzokideen laguntza eskatzen dugu. Eguerdiko 2:30etan egundoko bazkaria (txartelak, 150 bakarrik, tabernetan salgai daude).

Arratsaldeko 6etan trikitixak lasterketa aurreko giroa berotuko du lasterketarako dena bero-bero egon dadin.

Arratsaldeko 6:30etan asto lasterketa. Jendea bertan parte hartzera gonbidatzen dugu (ezinbestekoa da mozorroturirik joatea).

Gauean, dantzaldia Irailerako 6 taldearekin.

OHARRA: Automobilak aparkatzeko azken urteetan bezala RENFEko kontenedore aldea irekita geratzen da.

CHIARA

Etixerako lentzeria
Oparitarako gaiak

Labeaga, 33-C behea ☎ 72 51 18

Madaia plazoletan
20700 URRETXU

Z
A
P
A
T
A
K



Otik 40 zenbakiraino

Eliz-kale, 7 ☎ 943 72 54 39
ZUMARRAGA



Belardenda, dieta eta errejimen
elikadura

Labeaga 31 ☎ 943722780
URRETXU

foto luz
Argazkilariak

Legazpi, 5
☎ 72 11 55
Zumarraga

Labeaga, 43
☎ 72 16 81
Urretxu

Kale nagusia, 5
☎ 73 04 19
Legazpi

* ZURE ESTUDIOA *

GOSARIETAN BEREZITASUNA
GOIZEKO 6etan ZABALTZEN DUGU



OSINALDE
KRUASANDEGIA
TABERNA

S. Esnaola, 26 ☎ 943720306
ZUMARRAGA

Herriko abenturazaleak ETBn

Unai Badiola, Joseba Goenaga, Garikoitz Oiarzabal, Ramon Irastorza, Ander Arrieta, Mikel Navarro eta Xabi Enriquek aspalditik dute naturarekin harremanean egiten diren kirolekiko zaletasuna. Hau dela eta, Ordiziako lagun batek Salomonen X-Mountain abentura zirkuituaren berri eman zienean, Piriniotako Sierra de Guaran antolatu zen frogan parte hartzea erabaki zuten. Kirola bera eta bertako giroa gustatu zitzaien eta ordutik hona hainbat frogatan parte hartu dute. Euskal Herrian kirol honetan hasi ziren lehenengotakoak izanik, ETBren deia jaso zuten eta ekainaren 19ko asteburuan Gavarnien ospatu zen txapelketan, abuztuan telebistaz ikusiko den dokumentala grabatu zuten. Gavarnien estatu frantsesetik kanpoko lehiakide bakarrak izan ziren eta 16. postua lortu zuten.

Zeintzuk dira abentura kirol honen ezaugarriak?

Salomonek antolatzen duen X-Mountain zirkuituaren barne 8 froga daude. Bakoitzean ibilbide bat bete behar da kirol ezberdinak eginez: mendian ibili, mendi bizikleta, barranku jaitsiera, kanoa eta espeleologia; denak ere orientazioa erabiliz bete behar dira. Frogak burutu behar direneko lekuan kanpamentu bat egoten da eta bertara heltzean "road book" a prestatu behar da. Bertan gure materiala eta zertifikatu guztiak zehaztu behar ditugu antolatzaileek baldintza guztiak betetzen ditugula ziurtatu dezaten. Hurrengo egunean, hasi baino pixka bat lehenago, bete beharreko ibilbidea zein den erakusten digute. Iparorratza erabiliz tramu ezberdinak bete behar ditugu eta kontrol postu guztietatik pasa, bakoitzean kirol bat eginez, eta ahalik eta bide egokiena topatuz. Irabazlea ibilbide guztia egiten denbora gutxien behar duena da. Taldeak laukoak izaten dira eta hiru beti elkarrekin froga ezberdinak betetzen joan behar dugu. Kirol espezialidadez aldatzean errelebu bat egin dezakegu.



Nolatan suertatu zaizue ETBrentzat erreportaiak grabatzeko aukera?

Dirudienez Crédit Agricole eta Bankoa bankuak fusionatu egin dira. Euskal Herrian publizitatea egiteko ETBri gure kirola egiten duen talde bat aukeratu eta dokumentalak egiteko eskatu diote. Dokumental hauek Gavarnien grabatu ditugu ekainean eta udan ETBn eskeiniko dituzte. Gure patrozinatzaileak Arrasate Kirolak, Astore eta Ternua dira eta kirol ezberdinak burutzeko behar dugun tresneria eta erropa eskeintzen digute. Hala ere,

Ekainak 18ko asteburuan 16.ak izan ziren Gavarnien burututako lehiaketan

Gavarniera egin dugun azken bidaia honetan Crédit Agricolek ere lagundu digu bidaia eta egonaldia ordainduz. Laguntza hauek guztiak oso ondo datoz, kirol hau nahiko garestia baita. Janari berezia erosi beharra dugu, taldearen izen-emateak 50.000 pezeta inguru balio du, furgonetak alokatu behar ditugu, bizikletak konpondu...

Zer nolako giroa izaten da lehiakideen artean?

Leku guztietan bezala, era guztietak jendea izaten da, baina oro har oso giro ona izaten da. Talderen batek arazoren bat badu, elkarri laguntzen diogu. Leku oso ezberdinetako jendea biltzen gara: Finlandiarrak, austriarrak, frantsesak... baina gehienbat Katalunian dago sustraitua kirol hau. Euskal Herriko gero eta talde gehiagok ere parte hartzen dugu. Azken egunean denok bazkari bat egiten dugu elkarrekin eta bertan asteburuan bizitako pasadizuak kontatzen aritzen gara. Kirol honi esker lagun asko egiteko aukera izan dugu.

Aurrerantzean zer helburu dituzue?

Gure helburua geroz eta hobe ibiltzea da Baina oso zaila da, lehiaketan lehenengoan artean aritzeko egunero kirol hauek prestatu beharra dago. Txapelketa hauetara joaten diren zenbait talde profesionalak dira eta euren patrozinatzaileek baldintza egokiak eskeintzen dizkiete. Guk, lana dela eta, ezin dugu hainbeste entrenatu. Normalean entrenamenduetan bizikletan eta mendian ibiltzen gara Santa Barbaratik gora. Zenbaitetan Piriniotara ere joaten gara. Kanoan, berriz, ezin izaten gara hainbeste aritu. Txingudi aldera joan izan gara, baina ezin gara Irunera askotan joan. Gure

asmaoa aurten lau frogetan parte hartzea eta Finlandiara joatea ere bazen, baina ezin izango dugu. Aurre-inskripzioa bete genuen arren, dirua alde aurretik ordaintzea ahaztu zitzaigun eta ez gaituzte onartu. Hau dela eta, udan Alpeetara joango gara bizikletaz soilik burutzen den Iron Bike frogan parte hartzera.

Kirol hau dirudien bezain arriskutsua al da?

Istripu txikiak izan ditugu, baina ez da jendeak uste bezain arriskutsua. Behin Unai erori eta belaune-

an mina hartu zuen eta beste behin itsasoan kayak frogan geundela hipotermia bat izan geneuen. Baina honelakoak gutxitan izaten dira eta ez oso larriak. Kontuan izan behar da antolatzaileek euren irudia zaindu beharra dutela eta ez zaiela istripurik egotea komeni. Ibilbidean gune arriskutsuren bat badago oso ondo aseguratu egoten da. Inguru hauetan bizikletan ibiltzea arrisku-tsuagoa da.

“Kirol hauek ez dira jendeak uste duen bezain arriskutsuak”


Komunikabideek zer nolako jarraipena egiten diote zuen kirolari?

X-Mountain zirkuitua sekulako muntaia da eta bertan komunikabide askotako kazetariak izaten dira. Canal+eko Transworld Sport saioan sarritan ematen dituzte erreportaiak eta naturarekin harremana duten kirolekin espezializatuak dauden aldizkarietan ere artikulu ugari idazten dira. Behin kobazulo batean sokatik zintzilik jaitsi eta behean kazetari bat zai nuen. Kobazuloan zer topatzea espero nuen galde-tu zidan, kazetari bat ez

nuela espero esan nion.


Beste pasadizurik ere izango zenuten...

Beno, ETBkoekin erreportaiak grabatzea nola lortu dugun ere berezi xamarra izan da. Beraiek lehenengo Bilboko talde bati deitu zioten telefonoz, baina hauek erdaraz erantzun zutela ikusi zutenean eseki egin zieten. Ondoren Mikel Navarriori deitu zioten eta honek euskaraz erantzun zienez eta jende euskalduna behar zutenez, guri eskeini ziguten erreportaia egitea.



INDUSTRIARAKO OSAGARRIAK - ELEKTRAGAIK - BURNIZKO TRESNERIA

Legazpi, 4 etxeazpia eskuina ☎ 943 72 40 12 Faxa: 943 72 54 31 ZUMARRAGA



RENEDO argazkiak
Jaunartzeak • Bataioak • Ezkontzak
Labraga 52-54 F URRETXU
☎ 725682 722292



MAPFRE

Aseguru etxea

S.Esnaola, 6 ZUMARRAGA
☎ 72 20 00 faxa: 72 24 00

LASKURAIN

**Emakumezko zein
gizonezkoentzat
arropa**


Iparagirre ibilbidea, 10 ☎ 943 72 11 05
Legazpi, 8 ☎ 943 72 07 57
ZUMARRAGA

nextlingo
school of English

Bertsolari Txirrita, 16 Iparagirre, 8
20017 Altza 20700 Zumarraga
Donostia Gipuzkoa
Tel./Fax: 943 39 43 77 Tel./Fax: 943 72 65 60
nextlingo@hotmail.com

PLAZAOLA
ITURGINTZA

Bide-Zar,5 ZUMARRAGA
☎ 943 72 13 70



Miguel Urteaga Panderojolea

-Zer izan nahi zenuen umetan?

Pelotaria.

-Aisialdian zer egitea atsegin duzu?

Zumardi elkartearen lagunekin egotea.

-Bizitzeko toki bat?

Eliz-Kale.

-Panderoa ez izatekotan, ze musika tresna joko zenuke?

Soinua

-Zer pandero nahiago duzu, emakumeena ala musika?

Aukeran emakumezkoena.

-Plazarik-plaza ligatzen al da?

Lehen orain baino gehiago.

-Plazarik gogokoena?

Ordizia.

-Zumarraga eta Urretxu plaza onak al dira?

Bai, bertan ere oso gustura aritzen gara.

-Maixa eta Ixiar ala Laja eta Landakanda?

Dudarik gabe, Laja eta Landakanda.

-Kepa Junkera ala Joseba Tapia?

Kepa Junkerak jotzen duena ez dut gehiegi atsegin, baina oso ona da.

-Gustuko trikitixa bikotea?

Itsasakorta eta Joxe Oria.

-Arin-arina ala fandangoa?

Fandangoa.

-Urretabizkaia anaiak ala Erostarbe anaiak?

Oso zaila da aukeratzea, bi bikoteak ere oso onak izan dira.

-Nor gustatuko litzaizuke ezagutzea?

Ez dut sekula horretan pentsatu.

-Norekin pasatuko zenuke asteburu bat?

Emaztearekin eta soinuarekin.

-Ilehoriak ala beltzaranak?

Etxean ilehoria dut...

-Egindako azken operaria?

Hilero "sobrea" ematen diot emazteari.

-Eta jasotakoa?

Ilobak oparitutako puro kaxa bat.

-Data bat?

Uztailak 2, Santa Isabel eguna.

-Neska izen bat?

Amaia.

-Zein egunkari irakurtzen duzu?

El Diario Vasco.

-Gustuko telebista saioa?

Kirolez-Kirol.

-Bereziki gorroto duzuna?

Maria Teresa Camposen saioa.

-Liburu bat.

La tragedia de los Andes.

-Filme bat.

Ez naiz filme zalea.

-Abesti bat

Luis Marianoren edozein kanta.

-Soinu bat.

Trikitixarena.

-Usain bat.

Arraiarena.

-Ukitzeko...


Edozer.

-Janari bat.

Kokotxak.

-Ura ala...

Errioxako ardo beltza.



URRETXU

OPTIKA-GABINETE AUDIOPROTESIKOA

Graduazioa-Audiometriak-Audiofonoen moldaketa-Begiko tentsioaren hartzea

Ipeñarrieta, 4 ☎943 72 09 07 Iparragirre, 1 ☎ eta faxa 943 72 59 68

PUBLIZITATEA

☎ 943 72 57 75

Azkeneko hau da iraila baino lehen aterako den azkeneko Otamotz alea. Gure nahia bertan Oskorriren kontzertuko argazkiak kaleratzea zen, baina egutegi arazoak direla eta, alea inprimategira San Juan bezperan eraman dugu. Ondo pasa oporrak!



Argazkia: Foto Luz



DENDA BERRIA!


Gotzon
Agirrezabal

Tf.- 943 76 72 52 -Faxa

ORDUTEGIA
astelehenetik zapatara:

10:00-13:00

eta 16:00-20:00.



Ehunak eta oihalak

Tapizeriak

Kortinak

Nordikoak

Era guztietako etxerako gaiak




Amillaga 5 • BERGARA • Renault-en ondoan

Eskerrikasko Urretxu-Zumarragako
bezero guztiei gugan jarritako konfidantzagatik.

Ondo pasa Santa Isabel jaiak!

URRETXUKO GIROA



URRETXUKO ALDAPA

AVENIDA - BUHAME - EZKURRA
FLORIDA - GAU-MOTZ - GOIKO KALE - LAKET
NAVARRO - OSABA - THE INTREPID FOX